Osakidetza

GORLIZKO OSPITALEA
HOSPITAL DE GORLIZ

**105/2012 EBAZPENA, GORLIZKO OSPITALEKO ZUZENDARI GERENTEARENA. HONEN BIDEZ JENDE AURREAN JARTZEN DA GAINBEGIRALE LANPOSTU BAT IZENDAPEN ASKEKO SISTEMAREN BIDEZ HORNITZEKO DEIALDIA.**

**Betebeharrak** (Dokumentuen bidez egiaztatu behar dira):

- Zerbitzu aktiboan egotea (edo horren parekoa den egoera batean) honako erakunde hauetako batean: Osakidetzako edozein Zerbitzu Erakundetan (plaza edukita estatupeko funtzionario gisa edo lanpostu finkoarekin), Gizarte Segurantzako Osasun erakundeetan (estatupeko langilea izanda) edo beste edozein erkidego autonomotako osasun zerbitzuan (estatupeko langilea izanda).
- Erizain tituluaren jabe izatea.
- Hiru urteko esperientzia B1 lanbide-taldean .
- Salbuespen gisa, betekizun espezifikoak betetzen ez dituen langile finkorik ez balego, lanpostu honetan sartu daiteke lan harreman finkorik ez duen pertsonala, beste betekizunak betez gero.

**Aintzat hartuko da:**

- Erizaintzako unitateak kudeatzeko esperientzia edo prestakuntza.
- Esperientzia edo prestakuntza izatea prozesuen araberako kudeaketa-ereduaz taldeak antolatzen eta kudeatzen.
- Prestakuntza eta ezagupenak izatea kudeaketa-trenez, kalitate-ereduez, prozesuez, etengabeko hobekuntzez, hala nola ISOz eta EFQMz.
- Informatika ezagutzak, Excel eta Word erabiltzaile mailan.
- 67/2003 Dekretuak ezartzen dituen irizpideekin bat datorren euskara maila izatea.
- Bakoitzak aurkeztu ahal ditu lanpostuan jarduteko garrantzitsutzat jotzen dituen eta jarduera hobeki betetzen laguntzen duten meritu guztiak.

**Eskabideak aurkezteko tokia eta epea:**

Interesa duenak honako helbide honetara helarazi behar du eskabidea (bere datu pertsonal guztiekin): Gorlizko Ospitaleko Langileen Zuzendaritza. Horrekin batera, aurkezten diren merituak eta ezarritako baldintzak betetzen dituela erakusten duen "Curriculum Vitaea" ere entregatu beharko du. Eskabideak aurkezteko epea 2012ko ekainaren 29an bukatuko da 14:00etan.

**Aukeratzeko Prozedura**

Interesatuek aurkeztutako dokumentazio guztia balioetsiko da eta, egoki iritziz gero, zenbait izangairi banakako elkarrizketa egingo zaie. Izangaiek eskatutako baldintzak betetzen ez badituzte, lanpostua esleitu gabe utz daiteke. Balioespen hori egin eta gero eta hura kontuan hartuta, lanpostua betetzeko proposamena egingo da, lanposturako izendapena formalizatzeko. Izendapen hori modu askean ezezta daiteke edozein unetan.

**Ebazpenaren aurkako errekurtsoak**

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiari aurkeztu ahal zaio, deialdia argitaratzen den biharamunetik eta hilabeteko apean

RESOLUCIÓN Nº 105 /2012 DE LA DIRECTORA GERENTE DEL HOSPITAL GORLIZ POR LA QUE SE HACE PUBLICA LA CONVOCATORIA PARA LA PROVISIÓN, MEDIANTE EL SISTEMA DE LIBRE DESIGNACIÓN, DE UN PUESTO DE SUPERVISOR/A

**Requisitos** (Se deberán acreditar documentalmente):

- Hallarse en situación de servicio activo o situación asimilada, con plaza en propiedad como estatutario funcionario o laboral fijo, en cualquiera de las Organizaciones de Servicios de Osakidetza-SVS, o como estatutario en Instituciones Sanitarias de la Seguridad Social ó Servicios Autonómicos de Salud,
- Estar en posesión de titulación de Enfermero/a
- 3 años de experiencia en grupo profesional B1
- Excepcionalmente, si no existiera personal con plaza en propiedad que cumpliera los requisitos específicos, podrá acceder a este puesto personal que no cuente con relación de empleo fijo y cumpla el resto de los requisitos.

**Se valorará:**

- Experiencia y/o formación en gestión de unidades de enfermería
- Experiencia y/o formación en organización y gestión de equipos mediante modelo de gestión por procesos.
- Formación y conocimientos en herramientas de gestión, modelos de calidad, procesos, mejora continua: ISO y EFQM.
- Conocimientos de informática a nivel de usuario en Excel, Word
- Nivel de conocimiento de euskera en conformidad con los criterios establecidos en el decreto 67/2003.
- Se podrán aportar cuantos méritos se consideren de interés y añadan valor al desempeño de este puesto

**Lugar y plazo de presentación de solicitudes:**

Los/as interesados/as deberán dirigir su solicitud cumplimentada con todos sus datos personales, acompañada de "Curriculum Vitae" que justifique el cumplimiento de requisitos y méritos alegados, a la Dirección de Personal del Hospital de Górliz, finalizando el plazo de presentación de solicitudes a las 14:00 horas del día 29 de junio de 2012.

**Procedimiento de Selección**

Se valorará la documentación aportada por los interesados, pudiendo acordar la realización de una entrevista personal con aquellos candidatos que se estime oportuno. Se podrá declarar desierta la plaza en caso de que los aspirantes no reúnan las condiciones exigidas. Efectuada dicha valoración y a la vista de la misma, se elevará propuesta de nombramiento, a fin de formalizar el oportuno nombramiento.

Dicho nombramiento podrá revocarse libremente en cualquier momento.

**Recursos contra la resolución**

Contra la presente Resolución podrá interponerse recurso de alzada ante la Dirección General de Osakidetza-SVS, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación.

Górliz, 2012ko ekainaren 15ean / En Górliz, a 15 de Junio de 2.012

Osakidetza
GORLIZKO OSPITALEA
HOSPITAL DE GORLIZ

Iz./Fdo: Carmen Rodríguez Rodríguez
ZUZENDARI GERENTEA / DIRECTORA GERENTE

**RAGARKI HAU ZENTRO GUZTIETAKO IRAGARKI TAULAN JARRIKO DA 2012KO EKAINAREN 19AN**
**PARA SU PUBLICACIÓN EN LOS TABLONES DE ANUNCIOS DE TODOS LOS CENTROS EL DIA 19 DE JUNIO DE 2012**

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SANIDAD